

Llorenç Corbella hitzaldia.

Zuzendaritza artisticoa - Eszenografia eta jantziaen diseinuak.

“HIZKUNTZA ESZENIKO BERRIAK ETA DRAMATURGIA BERRIAK”

“Kaixo, egunon. Lehengo eta behin eskerrak eman nahi dizkiet jardunaldi hauen antolatzaileei ni gonbidatzearen. Ni, kale antzerkiari dagokionez, ez dut ia lanik egin eszenografo legez, baina egin nuen lehenengo eszenografia kalerako pentsaturiko ikuskizun bat izan zen; ondoren, ostera, areto antzerkiari, operari eta dantza garaikideari ekin diet. Kale antzerkiarekiko ditudan lotura eta interesa oso handiak dira, lilurutzen nauen mundu bat da. Antzerkiaren munduan hasi nintzen Tárregako Fira hasi zen urte berean. Hau da, urte guzti hauetan, Fira bizi izan dut... oso gutxitan egin dut huts, eta 26 urte izan ziren, 27 urte beteko dira orain, eta denetarik ikusi izan dut. Gainera, ikusle eta zuzendari artistiko moduan bizi izan dut mundu hori, 84an zuzendari tekniko egon nintzen, 85ean zuzendari artistiko egon nintzen... Gero, utzi egin nion eszenografoa izateari, nire prestakuntza eta ikasketak jarraitu nahi nituelako. 2003an, berriro deitu zidaten eta proiektu honen buru izan naiz lau urtez. Tárregako Firako lanak jaialdietara joateko aukera ematen dizu, baita konpainia askorekin harremana izateko eta kale antzerkiko mundu izugarri hori ezagutzeko ere. Nik kale antzerkiaren guneak duen garrantziaz hitz egingo dut, eta horrek ez du esan nahi ez dudala gainerako guztia aintzat hartzen. Hala ere, uste dut asko dagoela deskubritzear eta konpainia, politiko eta produktoreekin ponentziak eta mahai inguruak eginez gero, era naturalagoan sortzera eta programatzera animatuko dira agian.

Nire ustez ikuskizun batek dena izan behar du kontuan, eta espazioa funtsezkoa da. Uste dut bizi garen mundu hain kaotikoan hobe izango litzatekeela beste ordena bat, beharbada, baina antzerkirako, nire iritziz, ona da kaosa, eta hizkuntza eta begirada aniztasuna. Hizkuntza asko, apur bat Babel dorrearen moduan; horrela, bakoitzak nahi duen moduan esan dezake nahi duena. Modu horretan, ez gara errepikapenean eta monotonian sartzen, eta fenomeno oso bizia izango da, eta askotarikoagoa. Gogoan ditut nire lehenengo urteak, Bartzelonako Teatre Lliure delakoan Fabiá eta Lluís Pascual ikuskizunetan lanean niharduenean eta laugarren horma apurtu nahi zenean. Nire ustez eta askoren ustez, aurkikuntza baino gehiago izan zen, muntaketa berri bat ikustera joaten zinen bakoitzean espazio desberdin bat aurkitzea. Espazio eszenikoa aldatu egiten zen ikusleen dispozizioaren arabera, berdina izan ez zedin, ikuskizun bakoitzak espazio antolamendu bat eman zezan. Horri esker, laugarren horma apurtzen zen eta, noski, kale antzerkia ikusiz, ez da laugarren horma soilik apurtzen; izan ere, ez dago hormarik. Hemen, bestelako harremana dago

ikusleekiko, eta beste mundu bat da, aurkitzear dagoena. Nik, kale antzerkiari dagokionez, bi mota bereizten ditut bereziki: kalean egiten den antzerkia eta kalerako pentsatutako antzerkia. Nire iritziz, desberdinak dira, kalean egiten diren ikuskizun asko ederki egin daitezke areto batean. Konpainiek, programa batean sartzea izugarri zaila bada ere, aukerak gehitzen dituzte. Gehienetan, jaietarako animazio ikuskizunak dira. Agian, ikuskizuna ikustera doazen ikusleak aurkitu ahal duzu, baina bertatik dabilzan ikusleak erakarri nahi dira. Ni horrek ez nau motibatzen, erreakzio bitxi eta dibertigarri asko topa baititzakezu, baina baita erreakzio desatsegin asko eragin ere. Ikuskizun batean, komunikazioa behar da artisten eta ikusleen artean, eta askotan, kalean, ikuskizun horiek alferrik galtzen dira, ikusleak ez direlako haietan interesatzen. Gainera, zentzu horretan, errebindikatu nahi nuke antzerkiera joateko errituala; hau da, pertsona batek ikuskizun bat ikustera joateko ahalegina eta erabakitasuna. Pertsona horren prestasuna ikuskizunaren mesedegarri izango da. Komunikazioa are zuzenagoa izan daiteke, eta gehiago kontzentra gaitzake. Jokaera hori aretoko ikusleekin izaten da, baina zergatik ez beste era bateko antzezpenetarako? Horrekin esan nahi dut, ikuskizun bat parke batean edo fabrika zahar batean antolatzen bada, aretoko antzerkiaz esaten den gauza bera esan daitekeela. Nire ustez, antzerkia beste edozein gauza bezain garbia eta garrantzitsua da, eta gauza asko eta asko adieraz ditzake, mezua berbera izanda ere. Kontua da baliabideak eta moduak aldatuko liratekeela, aretoko antzerkian ditugun konbentzio asko balio ez zaizkigulako eta berriak eratu behar direlako.

Nondik doaz joera berriak? Nik ez dakit eta ez zait gehiegi axola, garrantzitsuena da jendeak ikertzeko aukera izatea eta hizkuntza berriak bilatzen saiatu ahal izatea. Joera eta moda bestelako gauzak dira. Modari jarraitzea aspergarria izan daiteke. Antzerkiaren historia oso luzea da, eta orain baliabide teknikoak ditugu, eta baliabide horiek ikuskizunak hobetzen, ideiak beste modu batean azaltzen eta ikus-entzunezko arazoak hobetzen lagun diezagukete. Kaleaz mintzatzen naizenean, hiriguneaz ez ezik, kanpoko guneaz eta abarrez ere mintzatzen naiz. Beste alderdi bat ere badago, eta horretan ez da jakiten non amaitzen den edo non hasten den kale antzerkia. Hala ere, Belgikako jaialdi bateko zuzendariak definizio hau eman zuen: kale antzerkia aretoko jarlekurik behar ez den lekuan hasten da. Bueno, definizioetako bat da. Zabaldut nahi dut kale terminoa, eta leku bitxietan egin nahi dut berba antzerkiaz, beste erabilera batzuetarako pentsaturiko guneetan, antzerkiaren bitartez transformatu egiten ditugun guneetan. Nire ustez, are gehiago gara daitekeen mundua da. Uste dut konpainia batek, istorio bat kontatzeko edo antzezteko premia duenean..., istorio antzezteko gunerik aproposena zein izango litzatekeen pentsatu beharko lukeela. Hortik aurrera, ideia asko iradoki dakizkioke, eta, gero, dena delakoagatik ezin bada burutu, norberaren gunea eratzeko baliagarri izango zaio, bai eta leku askotan aurkezteko ere, diseinatu den moduan edo gune desberdinetara egokituta. Batzuetan, eszenografiako dirua azpiegituren gastatzea gustatuko litzaidakeela esaten dut,

ikusleak harrobi batera, fabrika zahar batera, igeritoki batera eta mendira eramateko, besteak beste. Kasu horietan, ez nuen eszenografiari egingo, baina nire lana gunearekin jardutea izango litzateke, ekintza artistiko bat egiteko; kasu honetan, ikuskizun bat aurkezteko.

Gune bitxiei dagokienez, berraurkitzea eta eraldatzea gustatzen zait; hori sormen prozesuaren zati bat da. Ekoizpen prozesua ere egin behar denean, lana zaildu egiten da; izan ere, lan horien normaltasun ezagatik eta ohiko orbitatik ateratzeagatik, apur bat gehiago konplikatzen da. Aurreikusita izan behar duzu ezustekoa, baldintzak asko aldatzen baitira... Ideia artistikoa ez da aldatzen, gertatzen dena zera da: egiteko modua izugarri alda daitekeela, eta ekoizpenean, batzuetan, eskema berdinak ez datozela bat, eta berraurkitzen joan behar dela. Horrelako proiektu bat burutzeko, kontuan hartu behar dira programatzaileak. Baina lana errazten badiegu, litekeena da haiek euren orientazioa aldatzea, bai eta uneko politikariak konbentzitzera animatzea eta horrelako ikuskizunak programatzea ere. Beti azaltzen da argudio bera; hau da, kale antzerkiko ikuskizunetan sarrerarik ordaintzen ez denez, ezin dela dirua berreskuratu. Neure buruari galdetzen diot: Zergatik ez? Lana ondo egiten bada, sarrera ordainaraz daiteke, nahi besteko kalitatea eta luxua eskain daiteke, eta kanpoko ikuskizunak antzoki batekoak besteko nabarmena izan dezake. Ikusten dugu antzerkira doazen zenbait pertsona beren burua erakustearren baino ez direla joaten, eta bost axola zaiela goian zer gertatzen den. Hortaz, nahiago nuke kalera joan, egoerak demokratikoagoa dirudielako edo denok antzekoagoak ematen dugulako. Ez dakit sarrera ordainaraziz gero plaza bat edo zelai bat ixterik dagoen. Gogoan daukat jaialdi bat. Hartan, kaleko ikuskizun asko ordaintzekoak ziren, eta gogoratzen dut ikuskizun horietako bat baso baten erdian egin zela, esparru batean izan beharrean, eta sarrera ordaindu behar zela. Bada, jende guztiak sarrera ordaindu zuen. Nola ez, Ipar European izan zen. Hori egingo balitz, nire ustez, konpainiak gehiago animatuko lirateke.

Espanian, primerako garaiak izan ditugu kaleko konpainiei dagokienez. Oso kale konpainia sortzaileak ziren, joera markatzen zutenak. Orain badirudi urte batzuk eman ditugula apur bat iraganean bizitzen.

Nire iritziz, aretokia ez den antzerkiaren irakaskuntzaren gaia lantzea falta zaigu Espanian. Hemen ez dago ia ezer, eta dauden antzerki eskola ofizialek oso urrunetik ikusten dute kale antzerkia. Konpainiek ahal duten moduan atera behar dute bizimodua, eta hori da eskolarik onena, baina ondo egongo litzateke ikastaroak egitea, aurreko taldeen esperientziak, segurtasuna, teknologia berriak eta abar irakasteko. Uste dut, eta adibidea oso argia da, Belgikan, Herbehereetan, Frantzian eta abarren, kale antzerkiko konpainia handiak daudela, nahiz eta eguraldia gurean bezain lagun izan ez. Handiak esatean, ez naiz tamainaz ari, ezta kategoriaz ere. Eta konpainia horiek emaitza onak dituzte, eta, askotan, sormen zentroeiei esker

izaten da. Arduradun politikoren batekin sormen zentroei buruz hitz egin izan dudanean, honako inpresio hau jasotzen dut: ez dakite eta ez dute jakin nahi zertan datzan. Ziur nago, sormen zentroak izango bagenitu, dinamizazioan eta ideiak elkartrukatzen izugarri lagunduko lukeela. Nik lan egin izan dut zenbait sormen zentrotan dantza konpainia batekin, Suitzan, Belgikan eta Frantzia; eta, noski, 15-20 egunean joaten ginen, ikuskizunak amaitzeko, eta hemen ez dugu horrelakorik. Han ganoraz lan egitea ahalbidetzen ziguten instalazioak genituen. Han, tailer txiki bat, argitaratze gela eta entsegu gelak genituen. Horrez gain, topo egiten zenuen entseatzen edo ikastaroak egiten ari ziren beste konpainia batzuetako jendearekin; han eragiten zen trukea oso aberasgarria zen. Gu, ikuskizuna amaitzeko geunden han; zenbait hitzaldi edo ikastaro ematen ziren hiriko jendearentzat, eta horrek jarduera bat dinamizatzen zuen zentroan eta hirian. Agintariek aukera hori buruz pentsatzea nahi nuke. Horrekin guztiarekin esan nahi dut espazioa lantzea interesatzen zaidala, baita konpainiek euren ikuskizunak edozein lekutan egiteko askatasuna izatea ere.

Lau argazki ekarri ditut, esandako guztia adibidez adierazteko. Argazki hau Dakar konpainiarena da, orain dela lau urtekoa. Egunez zen, leku ageri batean; ikuskizuna hirien eta herrien kanpoaldean egiten zen; hobe esanda, industrialdeetan, eta espazioa eraldatuta soilik. Eszenografiarik gabeko gune eszeniko bat sor daitekeela gutxi gorabeherako adierazteko adibidea da.

Beste argazki bat. Hemen hirigunea ikus dezakegu, jarleku bat ikusten dugu, seguru aski udalak ordaindutakoa... Jarleku batek ikuskizun bat egiteko balio dezake. Eta hau dantza ikuskizun bat da, ezin modernoagoa den gune batean, gune itxi batean, eta gune ireki batean ere ikus dezakeguna. Xelebrea ere bada, gune desberdinetan koka daitekeen ikuskizun bat ikusten duzunean, ikuskizun horretaz zer heltzen zaizun. Gogorutzen dut, iaz Teatro L'liure konpainiaren European House ikuskizuna ikusi nuenean: lau solairuko kristalezko egitura bat ikusi nuen eszenatokian, arkitektura berrikoa. Hamleten egokitzapen bat da, hitzik gabekoa, baina, handik egun gutxira, kanpoko jaialdi batean ikusi nuen, eta egitura hori belar gainean zegoen. Beraz, dena aldatzen zaizu. Nik ez dakit zer gertatzen den, baina kanpoan gehiago ulertzen zen eraikuntza hura. Adibide erakuts nitzake, baina ikuskizunak sortzeko eta antzezteko eraldatutako gune bat aurkeztea gustatuko litzaidake. Duela hamabost egun Alemanian izan dudanean esperientzia bat da, industria arto batean, siderurgia asko, burdin enpresa handi asko eta industria astuna dituen leku batean. Gune erraldoia da eta, inguruan, parkea du... 80ko hamarkadan fabrika itxi zenean, hura desegin beharrean eraldatu egin zuten. Eta zer egin zuten? Inguru horretan ez zeramaten oso ondo kultura gaia, eta arduradunek erabaki zuten parke bihurtzea; hain zuzen, hiri-parke. Hiritik hamar kilometrora dago, baina tranbia haraino heltzen da. Izugarri handia da, eta bertan bizikletaz doan jendea, pertsona helduak eta umeak aurki ditzakezu. Dena egokiturik edota eraldaturik dago, gasodromoan

urpekaritza egiten dute, horma hauetan eskalada egiten dute, umeentzako jolasak... Oso industrialala da, beste dimentsio batzuetakoa, eta, horrez gain, burdinazko estruktura guztietan igotzea dago. Nik pentsatzen nuen agian arriskutsua izango zela, baina, alemaniarrek egin dutenez gero, seguru dena kontrolpean dagoela. Beraz, parke bihurtu dute, biztanlerik gabeko hiri bat izango balitz bezala. Biztanleak beste leku batean bizi dira, bisitan joaten dira, eta kultura konplexu bihurtu da. Dena argizatuta dago. Argiztapena finkoa da; gauzez, ordea, argi ikuskizun bat dago. Hori guztia eszenografia itzela da. Nik ez dakit zer gerta daitekeen parke horrekin; izan ere, hori mantentzea... Uste dut iragankorra izango dela, 20, 50, 100 urte... eta gauzek herdoiltzen eta desagertzen jarraituko dutela. Baina beste kontzeptu bat da. Eta hori guztia azalduta, ondorio honetara iritsi nahi nuen: beste gauza batzuetarako egin zuten gune hori, eta, bere funtzioak bete ondoren, bat-batean kulturarako eta ikuskizunak egiteko erabiltzen hasi ziren. 125 metro luzeko nabe bat dago, antzerkia eta hainbat ikuskizun egiteko moldatua. Gune hori ikusita, Euskadi eta Asturias etorri zitzaizkidan gogora; seguru asko han ere antzeko guneak daudela. Ikuskizun bat ikustera joan nintzen Alemaniako gune hartara. Beharbada, ez zegoen ikuskizun hori kalean edo ohiko areto batean egiterik; izan ere, koroa agertzean ikusleok mugiarazten gintuzten... opera bat zen... Ni ohituta nengoen ikuskizun bat ikustera joateko mugitzera, baina ez ni mugi nazaten. Ikusleen mugimenduak gune desberdinak eratzen zituen. Istorioa gerra zibilari buruzkoa zenez, batzuetan, elkarren kontran jartzera behartzen gintuzten ikusleok; hau da, pasabide bat uzten zuten, eta, han, akzioa gertatzen zen. Ikuskizunaren bukaeran ikuslegoaren jarlekuak lotuta zituzten plataformak guztiz desordenatuta zeuden, eta ikusleok elkarren aurka jartzen gintuzten. Beno, ikusten duzue gune bitxiakiko kezka dudala. Zenbait lanbide izan ditut, zenbait ideia garatzen ahalbidetu didatenak, eta ikusle moduan gozatu ahal izan dut... Hau ez da kale antzerkia, baina bai ohi ez bezalako gune batean egindako ikuskizuna. Beste mundu bat da, eta, oraindik, bide luzea egin behar da.”